



GAI OROKORRAK

184 eredia aurkeztu behar dutenak

Hauek erabili behar dute 184 eredia:

- Zerga egoitza Araban duten errenta egoketaren araubideko erakundeak, jarduera ekonomikoren bat egiten badute edo urtean 3.000 eurotik gorako errentak lortu badituzte
- Informazio betebeharra honako hauek bete behar dute:
- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren arabera errenta egoketaren araubideko erakundearen ordezkari denak, hau da, haren ordezkari denak, baldin eta sinesgarriro frogatzen bada; eta ordezkari izendatu ez bada, halakotzat joko da ageriko kudeaketa eta zuzendaritza lanak egiten dituenak edo, besterik ezean, erakundearen kide edo partaidea.

184 eredian adierazi beharreko informazioa: Sartu behar diren errentak

184 eredian errenta egoketaren araubideko erakundeak lortutako errentak zehaztu behar dira, bai eta bazkide, jaraunsle, erkide eta partaide bakoitzari egotzi behar zaion errenta ere

Nola kalkulatu sartu beharreko errentak

1. Egotzi beharreko errentak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauen arabera kalkulatu dira, eta honako berezitasun hauetan ez dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauak 25. artikuluko 4. idatz zatian, 30. artikuluko 3. idatz zatian eta 39. artikuluko 3. idatz zatian ezarzen diren integrazio ehunekoak:
 - a) Erakundearen kide guztiak sozietatearen gaineko zergagatik edo Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergagatik zergadunak direnean eta establezimendu iraunkorra dagoenean, ondare sozietateak ez badira, errenta egokarria sozietateen gaineko zergaren xedatutakoaren arabera zehaztuko da.
 - b) Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunari (establezimendu iraunkorrik ez) esleitu beharreko errenta Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauak IV. kapituluaren ezarritako duenaren arabera zehaztu behar da.
 - c) Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateetan, sozietateen gaineko zergaren zergadunaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren (establezimendu iraunkorrenekin zein halakorik gabe) zergadunak diren kideetatik pertsona fisiko ez direnei jarduera ekonomiko bati lotuta ez dauden ondare elementuak eskualdatuta lortutako irabazien ondorioz esleitu beharreko errenta kalkulatzeko ez da aplikatuko PFEZi buruzko Foru Arauaren lehen xedapen iragankorrean xedatzen dena.
2. PFEZen edo sozietateen gaineko zergaren zergadunak den bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzak atzerrian eratu den eta errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate bateko kidea bada, horiei guztiei esleitu beharreko errenta zatia aurreko lehenengo erregelaren adierazitakoaren arabera zehaztuko da.

3. Baldin eta errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate baten errentak lortzen baditu atzerrian, hain zuzen ere Espainiarekin zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenik (informazioa trukatzeko klausula duena) sinatuta ez duen herrialde batean, ez dira konputatuko herrialde horretan bertan iturri beretik lortutako errenta positiboak gainditzen dituzten errenta negatiboak.
Gaindikina hurrengo lau urteetan zenbatuko da arau honetan ezarritakoarekin bat etorritik.
4. Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei esleitutako errenten izaera sortu diren jardueraren edo iturriaren arabera izango da.
Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate batek jardue-
ra ekonomiko bat egiten badu, jardueraren etekinak etekin ekonomiko izango dira entitateko bazkide, erkide, partaide edo jaraunsleentzat, baldin eta jarduerari lotutako ekoizbideen eta giza baliabideen norbere konturako antolamenduan ohikotasunez eta zuzenean parte hartzen badute.
Hala ere, eratzikitako etekinak kapitalaren etekinak izango dira aurrean aipatutako jardueretan parte hartzen ez duten bazkide, jaraunsle, erkide eta partaideentzat, baldin eta erakundearen partaidetza kapitala ekartzea baizik izan ez bada
Hala gertatuz gero, egotz daitezkeen etekina gehienez ere ekarritako kapitalaren %15 izango da.
5. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei ordaintzen zaizkien errentei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauetako atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar zaizkie, bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzari aplikatu beharreko zerga araubidea gorabehera. Atxikipena edo konturako sarrera kide bakoitzaren gaineko karga pertsonaletik kenduko da, hain zuzen ere errentak eratzikitzen zaizkion proportzio berean.
6. Errentak kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauen edo itunen arabera eratzikiko zaizkie bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei. Zerga Administrazioak horien berri ez badu modu sinesgarrian, errentak hainbanatu egingo dira.
Horri dagokionez, urtarilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuak, zergadunen eroldari eta horren inguruko betebeharrei buruzkoak, xedatzen du errentak eratzekitzeko araubideko erakundeek, besteak beste, euren bazkide, erkide edo partaideei buruzko aldatetako jakinarazi beharko dituztela, behin betiko identifikazio fiskaleko zenbaki bat lortu badute ere, jabetza horizontaleko araubidean eraturako jabeen erkidegoak izan ezean, Enpresaburuaren, Profesionalen eta atxikitzaileen eroldan sartuta egon arren. Lehen indarrean zeudenak aldatzen dituzten eskrituren edo dokumentuen kopia aurkeztu beharko dute, dagokien erregistroan inskribatu edo inskripzioa beharrezkoa ez balitz hura eman eta hilaibeteko epean, sartutako aldatetek aldatetaren eroldan aitortu behar diren errentak aurkezteko eskatzen dutenean.

Aitortu beharreko errenten aldia. Zer aldiri buruzkoak izan behar dute aitortu beharreko errentak?

184 eredian egutegiko urte bakoitzean erakundeak lortutako errentak eta erakundearen kide bakoitzari egotzi beharrekoak aitortu behar dira

Aurkezteko epea, lekua eta ordaintzeko era

184 eredia urte bakoitzeko otsailean aurkeztu beharko da, aurre-aurreko egutegi urtean erakundeak eskuratutako errentei eta kide bakoitzari eratzeki beharreko errentei dagokienez.

184 eredia telematikoki aurkeztea lehenetsiko da, telematikoki aurkeztera derrigortuta ez daudenentzat. Inprimakian aurkezteko modalitatea Arabako Foru Ogasunaren bulegoetan egingo da.

Konposizioa

184 ereduak atal hauek ditu: "Laburpen orria", "Erakundeak lortutako errentak aitortzeko orriak" eta "Bazkide, jaraunsle, erkide eta partaideen zerrendak jartzeko orriak"

NOLA BETE LABURPEN ORRIA

Aitortzailea. Identifikazioa

Errenta egoketaren araubideko erakundearen identifikazio etiketa, Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzak ematen duena, berariaz ezarritako tokian itsatsi behar da.

Ekitaldia

Aitorpenaren ekitaldiaren lau zifrak jaso behar dira.

Aitorpenaren identifikazio zenbakia

Aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da. Zenbaki sekuentziala izan behar da, eta lehenengo hiru digituak 184 izan behar dira (ereduaren kodea).

Ordezkaria

Errenta egoketaren araubide erakundearen ordezkariaren datuak jarri behar dira.

Harremanetarako pertsona

Harremanetarako pertsonaren datuak jarri behar dira.

Aitorpen osagarria edo ordezkoa

Aitorpen osagarria. Aitorpenaren xedea ekitaldi bereko beste aitorpen batean, dagoeneko aurkeztuta dagoen batean, sartu behar eta ahaztu diren eragiketa batzuk sartzea denean, lauki honetan X jarriko da.

Ordezko aitorpena. Aurkezpenaren xedea ekitaldi bereko beste aitorpen bat, okerreko datuak eduki dituen, osorik deuseztatzea eta ordezteka bada, lauki honetan X ipini behar da.

Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bat bakarrik deuseztatu dezake.

Aurreko aitorpenaren identifikazio zk. "Aitorpen osagarria" edo "Ordezko aitorpena" laukietan "X" bat jarri bada, ordeztutako edo osatutako aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.

Entitate mota

A. Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten errenta egoketaren araubideko erakundeak.

Erakunde motaren gakoak. Erakunde motari dagokion zenbakizko gakoak idatzi behar da; hona gakoaren zerrenda:

1. Sozietate zibila.
2. Ondasun erkidegoa.
3. Jaso gabeko jarauntsia.
4. Jabeen erkidegoa.
5. Bestelakoak.

Jarduera nagusiaren gakoak. Erakundeak egiten duen jarduera nagusiari dagokion zenbakizko gakoak jarri behar da:

1. Enpresa jarduera.
2. Lanbide jarduera.
3. Ondasun higiezinaren ukaitza eta administrazioa.
4. Finantza balore edo aktiboen ukaitza eta administrazioa.
5. Bestelakoak.

B. Eragiketen bolumenaren zenbatekoa.

Entitateak egiten dituen jarduera ekonomikoetako eragiketen bolumena jardueran ondasunak emanez eta zerbitzuak eginez

lortutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa da, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetzaren errekarua kenduta.

Aitorpenean jasotako datuen laburpena

Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen guztirako kopurua. Aitorpenean sartutako bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak kontuan hartuta, egotzi beharreko etekinen, kenkariaren edo atxikipenen gako edo azpigakoetatik zenbatekoren bat dutenen guztirako kopurua adierazi behar da (ikus, beherago, bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen zerrendaren orria betetzeko jarraibideak).

Data, zigilua eta aurkezlearen sinadura

Aitorpenaren data eta sinadurarentzat utzitako hutsunean data eta errentak eratzikitzeko araubideko entitatearen ordezkariaren sinadura jasoko dira.

ERAKUNDEAREN ERRENTAK AITORTZEKO ORRIAK ETA BAZKIDE, JARAUNSLE, ERKIDE ETA PARTAIDEEN ZERRENDAK JARTZEKO ORRIAK BETETZEKO ARAU OROKORRAK

BARRUKO ORRIEN IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. Aitorpeneko orrialde guztietan erakunde aitortzailearen identifikazio datu hauek agertu behar dira:
 - *IFZ:* erakunde aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - *Izena edo sozietatearen izena:* erakundearen izen osoa, anagramarik gabe. Ezin izango da, inolaz ere, merkataritza izenik jarri.
 - *Ekitaldia:* aitorpenaren ekitaldia idatziko da.
2. Ereduan inprimatutako eremuak nahiko ez badira eskatutako datu guztiak jartzeko, formatu bereko orri gehiago erabili ahal izango dira.
3. Kopuru negatiboen aurrean zeinua jarri behar da, baina inoiz ere ez parentesi artean.

ERAKUNDEAK LORTUTAKO ERRENTAK

OHARRA: Errentak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauen arabera zehaztuko dira, eta ez dira aplikatuko PFEZri buruzko azaroaren 17ko 33/2013 Foru Arauaren 25. artikuluko 4. idatz zatian, 30. artikuluko 3. idatz zatian eta 39. artikuluko 3. idatz zatian ezartzen diren integrazio ehunekoak, aipatzen diren berezitasunekin (foru arau horren 55.1, 1. artikulua)

Betetzea: Erakundeak lortutako errentak aitortzeko orriak

A) Kapital higigarriaren etekinak

PFEZren 33/2013 FAREN 34., 35. eta 36. artikuluetan aurreikusitakoak

Sarrera osoak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 34., 35. eta 36. artikuluetan aurreikusitako kapital higigarriaren etekin osoen guztizko zenbatekoa idatziko da.

Errenta egozkarria. Atal honetan aipatutako kapital higigarriaren etekinen kontzeptuko errenta egozkarriaren guztizko zenbatekoa idatziko da, eta bat etorriko da Sarrera osoen atalean jasotako zenbatekoarekin.

PFEZri buruzko 33/2013 FAREN 37. artikuluan aurreikusitakoak

Sarrera osoak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 37. artikuluan aurreikusitako kapital higigarriaren etekin osoen guztizko zenbatekoa idatziko da. *Gastuak.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 37. artikuluan aurreikusitako kapital higigarriaren etekinen gastuen guztizko zenbatekoa idatziko da, zerga ondorioetarako ken daitezkeen gastuena.

Errenta egozkarria. Kapital higariaren etekin gisa egotz daitekeen errentaren guztizko zenbatekoa adierazi behar da.

Errenta egozkarria = Sarrera osoak – Gastuak

C) Kapital higiezinaren etekinak

PFEZri buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 1. idatz zatian aurreikusitakoak

Sarrera osoak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 1. idatz zatian aurreikusitako kapital higiezinaren etekin osoen guztizko zenbatekoa idatziko da.

Gastuak / Hobaria. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 1. idatz zatian aurreikusitako kapital higiezinaren etekinen gastuen guztizko zenbatekoa idatziko da, zerga ondorioetarako ken daitezkeen gastuena, sarrera osoei aplikatu behar zaion hobaria barne.

Errenta egozkarria. Kapital higiezinaren etekin gisa egotz daitekeen errentaren guztizko zenbatekoa adierazi behar da.

Errenta egozkarria = Sarrera osoak – Gastuak / Hobaria

PFEZri buruzko 33/2013 FAren 32. artikuluko 2. idatz zatian aurreikusitakoak

Sarrera osoak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 2. idatz zatian aurreikusitako kapital higiezinaren etekin osoen guztizko zenbatekoa idatziko da.

Gastuak / Hobaria. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 2. idatz zatian aurreikusitako kapital higiezinaren etekinen gastuen guztizko zenbatekoa idatziko da, zerga ondorioetarako ken daitezkeen gastuena, sarrera osoei aplikatu behar zaion hobaria barne.

Errenta egozkarria. Kapital higiezinaren etekin gisa egotz daitekeen errentaren guztizko zenbatekoa adierazi behar da.

Errenta egozkarria = Sarrera osoak – Gastuak / Hobaria

D) Jarduera ekonomikoaren etekinak

Atal honetan errenta egozketaren araubideko erakundeak egindako jarduera ekonomikoaren etekinak zehaztu behar dira.

Etekinak zehazteko metodoa. Atal honetan errenta egozketaren araubideko sozietatearen jarduera ekonomikoaren etekinak zehazteko metodoa zehaztu behar da zenbakizko bi gako hauetako baten bitartez:

Etekinak zehazteko metodoa	Gakoa
Zuzeneko zenbatespena. Modalitate arrunta.	1
Zuzeneko zenbatespena. Modalitate erraztua.	2

Jarduera mota. Gakoa. Aitorpen inprimakiko zutabeetan agertuko diren jardueren mota edo izaera adierazi behar da ondoko bost gakoetatik kasu bakoitzean behar dena jarrita:

Jardueren mota edo izaera	Gakoa
Merkataritzako enpresa-jarduerak	1
Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak	2
Enpresa-jarduerak, merkataritzakoak ez bestelakoak	3
Artearen edo kirolaren arloetako profesional-jarduerak	4
Gainerako profesional-jarduerak	5

EJZren Taldea / Epigrafeak. Erakundeak egiten duen jarduera Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dagokionez zein talde edo epigrafetan sailkatuta dagoen adieraziko da.

Sarrera osoak. Errenta egozketaren araubideko erakundeak kasuan kasuko jarduera ekonomikoaren bidez lortutako sarrera osoen zenbatekoa jarri behar da. Atal honetan bazkide, jaraunse, erkide edo partaide bakoitzak jarduerarako aldi baterako ezintasunaren zioz hartutako prestazioak eta kopuruak sartu behar dira.

Gastuak. Jarduera ekonomikoaren etekinetatik ken daitezkeen gastuen guztirako guztizko zenbatekoa jarri behar da, azalpen honeetatik ateratakoa:

1. Langileen gastuak
2. Ustiapeneko kontsumoak
3. Zerga ondorioetarako ken daitezkeen zergak
4. Errentamenduak eta kanonak
5. Konponketak eta zainketa
6. Profesional independenteen zerbitzuak
7. Hornidurak
8. Finantza gastuak
9. Amortizazioak
10. Hornidurak
11. Zerga ondorioetarako ken daitezkeen bestelako gastuak

Etekinak zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuaren bidez zehazten zaizkion jardueri dagokienez, eta etekin garbia zehazteko, PFEZri buruzko azaroaren 17ko 33/2013 Foru Arauaren 28. artikuluko 1. idatz zatiko a) eta b) letretan eta 2. idatz zatian xedatutakoa hartuko da kontuan.

Aurretiako etekin egozkarria. Sarrera osoen eta gastu kengarrien arteko kendura jarri behar da.

Aurretiako etekin egozkarria = Sarrera osoak – Gastuak

Kobratzeko eta ordaintzeko irizpidea. Baldin eta entitateak ekitaldian egindako jarduera ekonomikoaren errenten aldi egozketarako Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 1eko 37/2013 Foru Arauaren 54.4 artikuluan ezarritako irizpidea aplikatu badu, edo, bestela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren Araudiak, abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 49.2 artikuluan kobrantzetarako eta ordainketetarako ezarritako irizpidea, "X" idatzi behar da.

R) Jarduera ekonomikoari lotutako ondasunen ondare irabaziak eta galerak

Atal honetan jarduera ekonomikoaren multzoari atxikitako ondare elementuetatik lortutako ondare irabaziak eta galerak aitortu behar dira.

Zenbatekoa Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz kalkulatu da.

Irabazi edo galera egozkarriak. Ekitaldian egotz daitezkeen ondare irabazi eta galeren zenbatekoa jarri behar da.

F) Ondare elementuak eskualdatzearen ondorio ez diren ondare irabaziak eta galerak

Atal honetan ekitaldian benetan egotzitako ondare elementuen eskualdatzearen bidez ez beste eragiketara batzuen bidez lortutako irabazi eta galera garbiak aitortu behar dira.

Irabazi edo galera egozkarriak. Ekitaldian egotz daitezkeen ondare irabazi eta galeren zenbatekoa jarri behar da.

G) Ondare-elementuaren eskualdaketen ondorioz ondarean izandako irabaziak eta galerak

Atal honetan, ondare elementuaren eskualdaketatik ondorioztatutako galera eta irabazien zenbateko osoa adierazi behar da.

Ondare elementuaren eskualdatzeak sortuta, Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 47. artikuluan xedatutakoaren arabera ekitaldian benetan egotzen diren irabaziak eta galerak jarri behar dira.

Irabazi edo galera egozkarriak. Ekitaldian egotz daitezkeen ondare irabaziaren edo galeraren zatia jarri behar da.

H) Errenta egozkarria Sozietateen gaineko Zergaren arabera zehazten duten kideak dituzten erakundeak

Errenta egozketaren araubidean dagoen erakundeko kide guztiak Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun badira, partaide horiei egotzi beharreko errentak Sozietateen gaineko Zergaren arauari jarraituz zehaztuko dira.

Kontabilitateko emaitza. Ekitaldiaren emaitza jarri behar da, erakundearen urteko kontuetan ageri dena. Urteko kontuak merkataritzako eta kontabilitateko arau aplikagarrien arabera egin behar dira.

Doikuntzak: Gehikuntzak / Murrizketak. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauan eta zergen arloko gainerako arau aplikagarrietan ezarritakoaren arabera kontabilitateko emaitzari

gehitu edo kendu beharreko zenbatekoak adierazi behar dira, erakundeak ekitaldian sortutako zerga errenta zehazteko.
Errenta egozkarria. Ekitaldian haren kideei egotzi beharreko zenbatekoa jarri behar da.

Errenta egozkarria = Kontabilitateko emaitza + Gehikuntzak – Murrizketak

I) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauko kenkariak

Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauan aurreikusitako kontzepturen baten zioz kenkariaren oinarri den zenbatekoa jarri behar da.

02 16/2004 Foru Arauko kenkariak

Kenkariaren oinarria. Egindako dohaintzaren balioari dagokion zenbatekoa jarri behar da, Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 91. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulaturik.

04 Jarduera ekonomikoaren kenkariak

Kenkari oinarria. Ekitaldian egin diren inbertsio eta gastuetatik Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren VII. tituluko V. kapituluaren aurreikusitako kenkarietako baterako eskubidea ematen dutenen zenbatekoa idatzi behar da.

05 Nazioarteko zergapetze bikoitzgatiko kenkaria (atzerrian ordaindutako zenbateko efektiboa)

Kenkari oinarria. Erakundearen errenten artean atzerrian lortu eta zergapetutako etekinik edo ondare irabazirik egonez gero, horien gaineko kargaren ondorioz Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 92. artikuluan aurreikusitako moduan ordaindutako zenbatekoa jarri behar da

06 Beste kenkari batzuk

Kenkari oinarria. Aurreko ataletan jaso ez diren balizko beste kenkari batzuen oinarria jarri behar da, Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren araudian xedatutakoaren arabera.

J) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko kenkariak

Errenta egozketaren araubideko erakundeek atal hau bete behar dute baldin eta bazkide, jaraunsle edo partaideren bat Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun bada.

01 Nazioarteko ezarpen bikoitzgatiko kenketa

Zenbatekoa. Erakundeak atzerrian kargatutako errentak jaso baditu, eremu honetan errenta horien gaineko kargaren zioz ordaindutako zenbatekoa jarri behar da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Arauan ezarritakoaren arabera.

Halaber, erakundearen errenten artean sozietate ez-egoiliar batek ordaindutako mozkinetako partaidetzak edo dibidenduak konputatu badira, eremu honetan erakundeak benetan ordaindutako zergaren zenbatekoa jarri behar da, dibidendua zein mozkinen kargura ordaindu den, haixei dagokiena.

02 Kenkariak, kuota mugarekikoak

Zenbatekoa. Lauki honetan kuotan muga duen kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duten jardueretan inbertitu edo gastatutako kopuruen guztirako zenbatekoa jarri behar da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauaren V. tituluko III. artikuluan xedatutakoaren arabera.

03 16/2004 Foru Arauko kenkariak

Zenbatekoa. Irabazteko xederik gabeko erakundearen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren III. tituluan aurreikusitakoaren arabera mezenasgorako zerga pizgarrien araubidea aplikatu ahal zaien irabazteko xederik gabeko erakundeek egindako emariaren zenbatekoa jarri behar da. Gauzazko emari, dohaintza edo ekarpenak egin badira, dohaindu edo ekarritakoaren balioa jarri behar da. Balio hori kalkulatzeko aurrean aipatutako arauaren ezarritako balorazio arauak aplikatu behar dira.

04 Bestelako kenkariak

Zenbatekoa. Aurreko gakoetan aipatutakoez gainera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta beste edozein arau aplikagarritan xedatutakoaren arabera kuotan kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten inbertsio edo gastuen zenbatekoa jarri behar da lauki honetan.

K) Entitateak jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak

Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoak zehaztu behar dira, aitortpenaren epean errenta egozketaren araubideko erakundeak halakorik izan badu. 01 Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura

Kapital higigarriak ekitaldian sortutako etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren guztirako zenbatekoa adierazi behar da.

02 Hiriko ondasun higiezinaren errentamenduen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura (errentamendua jarduera ekonomikoa izan zein ez)

Lauki honetan hiriko ondasun higiezinaren errentamendua ekitaldian sortutako etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren guztirako zenbatekoa idatzi behar da, etekinak kapital higiezinatik zein jarduera ekonomikoetatik sortuak izan.

03 Jarduera ekonomikoaren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura

Jarduera ekonomikoek ekitaldian sortutako etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren guztirako zenbatekoa jarri behar da, hiriko ondasun higiezinaren errentamenduen ondoriozko atxikipenak eta konturako sarrerak izan ezik, hauen zenbatekoa aurreko laukian jarri behar baita.

04 Ondare irabazien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura

Talde inbertsioak erakundeetako partaidetzen nahiz akzioen eskualdaketa edo berreskurapena dela eta ekitaldian lortu diren ondare irabazien eta joko, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartuta lortutakoaren gainean egindako atxikipen eta konturako sarreraren guztirako zenbatekoa jarri behar da.

05 Beste kontzeptu batzuen ziozko atxikipenen eta konturako sarreraren batura

Hemen erakundeari aplikatutako gainerako atxikipenen edo konturako sarreraren zenbatekoa jarri behar da, aurreko epigrafeetan jaso ez dena.

BAZKIDEEN, JARAUNSLEEN, ERKIDEEN EDO PARTAIDEEN ZERRENDAREN ORRIA. ERRENTA EGOZKARRIAK

OHARRA: Errenta eratxikipenaren araubideko erakundeetako kideek, zerga honen zergadunak badira, PFEZri buruzko azaroaren 17ko 33/2013 Foru Arauaren 25. artikuluko 4. idatz zatian, 30. artikuluko 3. idatz zatian eta 39. artikuluko 3. idatz zatian ezarritako integrazio ehunekoak aplikatu ahal izango dituzte euren PFEZren autolikidazioan.

Erakundeko kidearen identifikazioa

Erakundeko kidearen IFZ. Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitateko kide den bazkide, jaraunsle, erkide edo partaidearen identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.

Legezko ordezkariaren IFZ. Erakundeko kidea 14 urtetik behar-rakoa bada, beraren legezko ordezkariaren (aitaren, amaren edo tutorearen) identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da eremu honetan

Errenta-eratxikipenaren araubideko erakundeko kideren bat Espainiako lurraldeko egoiliarra ez bada, haren ordezkari fiskalaren identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 21/2014 Foru Arauaren 10. artikuluan eta zergen arloko beste arau batzuetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Abizenak eta izena, edo sozietatearen izena. Pertsona fisikoak izanez gero: lehenengo abizena, bigarren abizena eta azkenean izen osoa. Pertsona juridikoa edo errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatea bada, erakundearen izen osoa idatzi behar da anagramarik gabe. Lauki honetan inolaz ere ezin da jarri merkataritzako izenik.

Helbide fiskala. Entitateko kidearen zerga egoitza adierazi behar da.

Probintziaren kodea. Erakundeko kidearen egoitza dagoen lurralde historikoari, probintziari edo hiri autonomoari dagozkion zenbakizko bi digituak idatzi behar dira; hona gako guztien zerrenda:

Araba	01	Girona	17	Palmas, Las	35
Albacete	02	Granada	18	Pontevedra	36
Alacant	03	Guadalajara	19	Errioxa	37
Almeria	04	Gipuzkoa	20	Salamanca	26
Asturias	33	Huelva	21	Santa Cruz Tenerife	38
Avila	05	Huesca	22	Segovia	40
Badajoz	06	Balearrak	07	Sevilla	41
Bartzelona	08	Jaen	23	Soria	42
Burgos	09	Leon	24	Tarragona	43
Caceres	10	Lleida	25	Teruel	44
Cadiz	11	Lugo	27	Toledo	45
Kantabria	39	Madril	28	Valentzia	46
Castelló	12	Malaga	29	Valladolid	47
Ceuta	51	Mellilla	52	Bizkaia	48
Ciudad Real	13	Murtzia	30	Zamora	49
Kordoba	14	Nafarroa	31	Zaragoza	50
Coruña	15	Ourense	32	Ez egoiliarak	99
Cuenca	16	Palentzia	34		

Herrialdearen gakoa. Erakundeko kideak bere egoitza daukan herrialde edo lurraldeari dagozkion bi digituak jarri behar dira, indarrean dauden herrialde eta lurraldeen kode alfabetikoen zerrendaren arabera.

Partaide motaren gakoa. Hauetako bat jarri behar da:

1. Egoiliarra.
2. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarra.
3. Establezimendu iraunkorra duen ez-egoiliarra.

Errentak eratzkitzeko araubideko erakundeko kidea

Errentak eratzkitzeko araubideko erakundeko kidea abenduaren 31n erakundeko kidea izan bada, X jarri behar da lauki egokian. Nolanahi ere, erakundeko kide urteko zenbat egunetan izan den adierazi behar da lauki egokian.

Partaidetza (%). Erakundeko partaide, bazkide, jaraunse edo erkideari dagokion partaidetza ehunekoak zehaztu behar da. Ehunekoak zenbaki osoa ez bada, lau hamartarrekin eman behar da.

Partaidetzaren izaera. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 54. artikuluan ezarritakoa dela bide, jarduera ekonomikoaren etekinak entitateko partaide, bazkide, jaraunse edo erkide hauei soilik esleituko zaizkie: jarduerari lotutako ekoizbideen eta giza baliabideen norbere konturako antolamenduan berenez eta zuzenean parte hartu ohi dutenei.

- Bazkide, jaraunse, erkide edo partaideak jarduera benetan egin badu, X jarri behar da *Jarduera benetan egin* eremuko **BAI** laukian.
- Bazkide, jaraunse, erkide edo partaideak jarduera ekonomikoa benetan egin ez badu, X jarri behar da *Jarduera benetan egin* eremuko **EZ** laukian.

Egozpena (%):

- *Jarduera benetan egin* eremuko **EZ** laukian X jarri bada, eremu honetan ez da ezer idatzi behar.
- *Jarduera benetan egin* eremuko **BAI** laukian X jarri bada, egozketa ehuneko hauetako bat jarri behar da.
 - a) Erakundeko kide guztiek benetan egin badute jarduera, egozketa ehunekoak aurretik adierazitako partaidetza ehunekoak bera izan behar da.
 - b) Entitateko kide batek jarduera benetan egin ez badu, benetan egin den jardueraren ehunekoari dagokion esleipen ehunekoak jarri behar da. Kontuan hartu behar da jarduera benetan egiten duten kide guztien esleipen ehunekoaren guztirako batura ehuneko 100 izan behar dela.

Etekinak, kenkariak eta atxikipenak

Inprimakia betetzeko arau orokorrak

1. Bazkidea, jaraunse, erkide edo partaide kide guztiak Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren

gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun diren erakunde bateko kide bada, H atala baino ez da bete behar, bai eta I/J eta K atalak ere, hala dagokienez.

2. Bazkidea, jaraunse, erkide edo partaide 365 egun bainoaldi laburragoan izan bada erakundeko kide, atal guztietan (A, C, D, R, F, G, S, I/J, K) jarri beharreko zenbatekoak zehazteko, egutegiko urtean erakundeko kide izan den egunen kopurua araberako proportzioa kalkulatu behar da, erakundearen alta edo baja gertatu denean izan ezik.

A) Kapital higigarriaren etekinak

PFEZren 33/2013 Foru Arauaren 34., 35. eta 36. artikuluetan aurreikusitakoak

Etekinen zenb. Errentak eratzkitzeko araubideko erakundeko kideari egotzi beharreko errentaren zenbatekoa jarri behar da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 34., 35. eta 36. artikuluetan aurreikusitako kapital higigarriaren etekinei dagokienez.

PFEZri buruzko 33/2013 Foru Arauaren 37. artikuluan aurreikusitakoak

Etekinen zenb. Errenta egozketaren araubideko erakundeko kideari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 37. artikuluan aipatutako kapital higigarriaren etekin gisa egotzi ahal zaion errentaren zenbatekoa adierazi behar da (sarrerak ken gastu kengarriak, egonez gero).

C) Kapital higiezinaren etekinak

PFEZri buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 1. idatz zatian aurreikusitakoak

Etekinen zenb. Errentak eratzkitzeko araubideko erakundeko kideari egotzi beharreko errentaren zenbatekoa jarri behar da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 1. idatz zatian aurreikusitako kapital higiezinaren etekinei dagokienez.

PFEZri buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 2. idatz zatian aurreikusitakoak

Etekinen zenb. Errenta egozketaren araubideko erakundeko kideari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 2. idatz zatian aipatutako kapital higiezinaren etekin gisa egotzi ahal zaion errentaren zenbatekoa adierazi behar da (sarrerak ken gastu kengarriak, egonez gero, hobaria barne).

D) Jarduera ekonomikoaren etekinak

Etekinen zenb. *Jarduera benetan egin* eremuko **BAI** laukian X jarri bada, errenta egozketaren araubideko erakundeko kideari jarduera ekonomikoaren etekin gisa egotzi ahal zaion errentaren zenbatekoa jarri behar da (gastu kengarriak kenduta, halakorik bada), *Egozketa (%)* laukian adierazitako ehunekoaren arabera

Kapital higigarriaren etekinak

Azpiatal hau *Jarduera benetan egin* eremuko **EZ** laukian X jarri bada soilik bete behar da, hau da, bazkide, jaraunse, erkide edo partaideak jarduera ekonomikoa benetan egin ez badu.

Etekinen zenb. Jarduera ekonomikoa benetan egin ez duen bazkide, jaraunse, erkide edo partaideak erakundean duen partaidetzaren ondorioz kapital higigarriaren etekin gisa jaso duen zenbatekoa adierazi behar da Hala gertatzen denean, egotzitako etekina gehienez ere erakundeko kide horrek ekarritako kapitalaren %15 izango da.

Atxikipenak eta konturako sarrerak. Kapital higikorren etekin gainean aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa zehaztu behar da.

R) Jarduera ekonomikoari lotutako ondare elementuen irabaziaz/galerak

Irabaziaren zenbatekoa. Jarduera ekonomikoari lotutako ondare elementuetatik sortu eta errenta egozketaren araubideko erakundeko kideari egotzi ahal zaizkion irabazi garbien zenbatekoa adierazi behar da.

Galeraren zenbatekoa. Jarduera ekonomikoari lotutako ondare elementuetatik sortu eta errenta egozketaren araubideko erakundeko kideari egotzi ahal zaizkion galera garbien zenbatekoa adierazi behar da.

F) Ondare elementuak eskualdatzearen ondorio ez diren irabaziak / galerak

Irabaziaren zenbatekoa. Ondare elementuak eskualdatuta ez beste eragiketa batzuen bidez sortu eta errenta egozketaren araubideko erakundeko kideari egotzi ahal zaizkion irabazi garbien zenbatekoa adierazi behar da.

Galeraren zenbatekoa. Ondare elementuak eskualdatuta ez beste eragiketa batzuen bidez sortu eta errenta egozketaren araubideko erakundeko kideari egotzi ahal zaizkion galera garbien zenbatekoa adierazi behar da.

G) Ondare elementuak eskualdatzearen ondoriozko ondare irabaziak / galerak

Irabaziaren zenbatekoa. Ondare elementuak eskualdatuta sortu eta errenta egozketaren araubideko erakundeko kideari egotzi ahal zaizkion irabazi garbien zenbatekoa adierazi behar da.

Galeraren zenbatekoa. Ondare elementuak eskualdatuta sortu eta errenta egozketaren araubideko erakundeko kideari egotzi ahal zaizkion galera garbien zenbatekoa adierazi behar da.

S) Errenta egozkarria Sozietateen gaineko Zergaren arabera zehazten duten kideak dituzten erakundeak

Errenta egozkarria. Errentak eratzikitzeko araubidean dagoen erakunde bateko kide bati egotzi ahal zaion errentaren zenbatekoa jarri behar da (Kontabilitateko emaitza + Gehikuntzak – Murrizketak), erakunde horretako kide guztiak Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun badira.

I/J) Kenkariak (33/2013 Foru Araua edo 37/2013 Foru Araua)

Gakoa. Dagokion gakoa (I edo J) jarri behar da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauko ala Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauko kenkariak aplikagarri izan.

Kenkariaren oinarria / zenbatekoa. Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideari egotzi ahal zaizkion kenkariaren oinarriak edo zenbatekoak adierazi behar dira azpigako egokietan:

Kenkaria	Azpigakoa
I gakoa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga	
16/2004 Foru Arauko kenkariak	02
Jarduera ekonomikoen kenkariak	04
Nazioarteko ezarpen bikoitzagatiko kenketa	05
Beste kenkari batzuk	06
J gakoa. Sozietateen gaineko Zerga	
Nazioarteko zergapetze bikoitzagatik	01
Kenkariak, kuota mugarekikoak	02
16/2004 Foru Arauko kenkaria	03
Beste kenkari batzuk	04

K) Atxikipenak eta konturako sarrerak

Atal honetan erakundeko kideari egotzi ahal zaizkion atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa zehaztu behar da.

Etekin, kenkari edo atxikipen egozkarrien gako edo azpigakoetatik zenbatekoa dutenak, guztira

Gakoen guztizko kopurua jarri behar da edo, azpigakoak daude-nean, etekinak, kenkariak eta atxikipenak, haietan zenbatekoaren bat jaso bada, arau hauei jarraituz:

1. Etekinak, kontabilizatutako errentei eta ondare irabazi eta galerei dagozkien gakoen kasuan (A, C, D, R, F eta G gakoa), zenbatekoa duten guztiak konputatu behar dira.
2. Kenkariaren kasuan, zenbatekoaren bat daramaten azpigako guztiak konputatuko dira.
3. Erakundearen errenta egozkarriaren (S gakoa) eta atxikipenen edo konturako sarreraren (K gakoa) kasuetan, zenbatekoa duten gakoa konputatu behar dira.